

## **BIZIKIDETZA UDAL ARAUA (ZIRRIBORROA)**

### **I. TITULUA**

#### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### **I. KAPITULUA: HELBURUA, LEGE OINARRIAK ETA APLIKAZINO EREMUA**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Bizikidetzaren udal araudiaren helburua da espazio publikoa bizikidetasun eta elkarbizitzarako espazio bezala zaintzea. Bertan pertsona guztiek askatasunez garatu ahal izango dituzte aske-zirkulazioko jarduerak (aisialdikoak, topaketakoak...), beti ere errespetatuz gainerakoen duintasuna, eskubideak, adierazpen aniztasuna eta bizitzeko era ezberdinak.

Egun arautu gabe eta herritar guztion arteko elkarbizitza bermatzeko hainbat jarrera arautzen dira Bizikidetzaren udal araudian. Aztertu diren beste gai asko, ez dira araudi honetan barneratu, beste araudi batzuetan jasota daudelako eta, beraz, araututa daudelako.

Horrela, bizikidetasunean eragina izan dezaketen egoerei aurre egiteko tresna eraginkorra izan nahi du Araudi honek. Egoera berriei erantzun demokratiko eta orekatua eman nahi da Araudi honen bitartez. Horretarako oinarrizkoa da espazio publikoetan aske jokatzeko guztiok dugun eskubidea onartzea. Aldi berean, askatasunarekiko, duintasunarekiko eta gainerakoei onartutako eskubideekiko bizikidetasun eta errespetuaren betebeharrak zehatzak guztiok onartu behar ditugu. Halaber espazio publikoa baldintza egokietan mantendu behar da.

Bermeo kale, eraikin, parke eta enparantzekin osatuta dago. Horiek antolatuta daude herritarrek erabili ahal izateko. Izan be, herritarrak dira herria sostengatzen eta forma ematen diotenak, bai aipatutako elementuak erabiltzen dituztenean eta bai elkarbizitzarako harremanen garapenean.

Hortaz, Bermeo hobetzen da, alde batetik, bere elementu fisikoak hobetuz, baina, beste alde batetik, gizalegezko portaerazko jarraibideak hobetuz. Horrela, herritarren elkarbizitza hobetuko da eta, azken finean, Bermeo hobeago bat eraikiko da bertan bizi garenentzat eta bisitatzen gaituztenentzat.



Gizalegezko portaerazko jarraibideak pertsona guztien askatasuna bermatu behar dute, muga besteenganako errespetua izanik. Herritarrek herriko espazio publikoak erabiltzeko eskubidea dute eta bere askatasunean errespetatuak izan behar dira. Eskubide hori gizatasunarekin erabili behar da eta bere mugak honakoak dira: ondasun publikoen erabileraren xedapenak eta pertsona eta ondasunak errespetatzeko betebeharra.

Inork ezin du bere jarrerarekin gainerako pertsonen eskubideak kaltetu edo mesprezatu, ezta ere baloreak erostu eta elkarbizitzako arauak mindu.

Gizalegezkoak ez diren portaerak, nahiz eta gutxienekoak izan, guztionak diren ondareak eta espazioak kaltetzeaz gain, elkarbizitzaren kontrako eraso bat dira. Horrez gain, bere eskubideak eta betebeharrak gizalegez bere gain hartzen duten herritarrenganako errespetu falta bat dira.

Bestalde, gizalegezkoak ez diren portaeren ondorioz, diru publiko kantitate handiak bideratu behar dira, ondareen garbitasun, mantentze, konpontze eta berritze lanetara, diru hori beste gauza baterako erabili ahal denean. Horregatik, gure herriko ondare eta espazio publikoak errespetatzeak diru publikoaren kudeaketa hobetzen du. Horrela, baliabide gehiago arrazionaltasunarekin erabili daitezke lehentasunetara bideratuz.

Duda barik, fenomeno horien sustraiak konplexuak dira eta udal arlotik at daude, izan be, arazo sozial, familiar eta hezkuntzarekin zerikusia dute, eta udal erakundeek legalki ezin dute bakarrik aurre egin, nahiz eta, paradoxikoki, horien ondorioak udal erakundeen eskuduntzen arloan ematen diren.

Horregatik, historikoki Udalen eskuduntzak gizalegezkoak ez diren jarreretatik eratorritako efektu horiek zuzentzera bideratu izan dira. Bermeoko Udalak materia hau arautu du, baina ezin izan du bere osotasunean egin, arlo batzuetan lege-gaikuntza falta dela eta.

Bizikidetzaren udal araudi honek gizalegezko portaerak arautzera bideratuta dago eta lehengo araudietan jasotzen ez diren materia berriak hartzen ditu. Hain zuzen ere, araudi berri honek gizalegezko portaerak arautuko dituenez, beharrezkoa da funtsezkoak diren hiru oinarri elkartzea: prebentzioa, gizalegezkoak ez diren portaeren zigorra eta horrek egiten dituztenen errehabilitazioa. Elementu guzti horien jokoak elkarbizitzaren kontrako portaerak ongi gobernatzea bilatzen du.

Bizikidetzaren udal araudiaren helburua da gizalegezko portaerak eta balioak bultzatzea, hain zuzen ere, elkarbizitza aztoratzen duten ekintzak saihesteko bitarteko bezala. Zalantzarik gabe, gizalegezko kontzientzia positiboa bultzatzea erabili beharreko lehenengo bitartekoa izan behar da gizartearen kontrako ekintzak ekiditzeko.



Horrez gain, testu honen helburua da ondare eta espazio publikoak babestea eta , herritarren arteko elkarbizitza bermatzeko helburuarekin, gizalegezkoak ez diren portaeren gaitzespena arautzen da.

### **1. Artikulua:** Ordenantzearen helburua

1.- Herriko espazio publikoak bizikidetzarako eta gizalegezko portaerak izateko gune modura babestea da Ordenantza honen helburua. Persona guztiek askatasunean garatu ahal izango dabez espazio publiko honeetan euren jarduerak: askatasunez ibili, alkartu, egon, astialdiaz gozatu, eta guzti hori, ganerako persona guztien duintasunari eta eskubideei errespetu osoa gordez. Bermeo gune kolektibo bat da eta persona guztiek daukie euren baldintzak aurkitzeko eskubidea, persona modura garatzekoa, bai politikoki zein sozialki, inguruko baldintzarik egokienetan. Horrek esan gura dau baita, alkartasunez, alkarri zor deusagun errespetuaz eta tolerantziaz jokatu behar dogula.

2.- Espazio publikoan bizikidetzeta eta gizalegezko portaerea sustatzera bideratutako neurri batzuk arautzen dauz Ordenantza honek. Zigortu egiten dauz bai herritarren arteko bizikidetzeta nahastau, nahiz espazio publikoan dagozan ondasunak apurtzen edo narriatzen saiatzen diranak. Honelako kasuetan esku-hartze berariazko neurriak aurreikusten dira.

3.- Izakera orokorreko erabilera komunek lehentasuna izango dabe beste erabilera batzuen ganetik, nahiz eta azken honeek be harmonizau eta posible egiteko ahaleginak egingo diran, ezinbestekoak gertatzen diranean interes pribaduak mantentzeko eta kalte handirik eragiten ez badeutsie interes publikoari.

### **2. Artikulua.-** Lege oinarriak

1.- 7/1985 Legea, apirilaren 3koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dauzenaren 139 eta hurrengo artikuluetan ahalmena emoten jake udalerriei arau-haustekak eta zehapenak tipifiketako, bizikidetzeta hartu-emonak antolatze aldera.

2.- Aurreko atalean ezarritakoa ulertu behar da, Bermeoko Udalari toki-araubidearen araudi orokorrak eta sektoreko legedi aplikagarriak emondako beste eskumen eta funtzinoen kalte barik.

### **3. Artikulua.-** Aplikazino eremu objektiboa

1.- Ordenantza hau Bermeoko udalerrri guztian aplikauko da.

2.- Batez be, Ordenantza hau aplikagarria izango da herriaren espazio publiko guztietan: kaleak, bideak, espaloiak, plazak, etorbideak, pasealekuak, pasabideak, bulebarrak, parkeak, lorategiak eta ganerako gune berdeak edo basokoak, zubiak, tunelak eta lurpeko pasabideak, aparkalekuak, iturriak eta urtegiak, eraikin publikoak eta udalaren jaubetzako zerbitzu edo erabilera publikoko espazio guztiak, eraikuntzak, instalazinoak, uri-altzariak eta beste ondasun guztiak eta euretan kokatutako udal jabari publikoko elementuak.



3.- Aldi berean, Ordenantza hau aplikagarria izango da udalarenetatik kanpoko beste administrazio edo erakunde nahiz enpresa publiko edo pribaduren jaubetzako zerbitzu publiko zein pribaduko eraikin, instalazio, ibilgailu edo elementuetan, esate baterako, garraiorako ibilgailuak, markesina edo aterpeak, autobus, tren edo autokarren geltokiak, hesiak, trafiko seinaleak, kontainerrak, eta beste honeelakoak. Kasuan kasuko, udalak hitzarmen bereziak egitea bultzatuko dau espazio, eraikuntza, instalazio, ibilgailu edo elementu horreen jaubeakaz, udalaren esku-hartzeak beharrezkoa dauen estaldura juridikoa izan daian.

4.- Era berean, Ordenantza hau Bermeoko itsasaldeari be aplikauko jake eta portu aldeari udalaren eskumenekoak diran eremu eta gaietan, legedi aplikagarria kontuan izanda, edota hitzarmen edo ordezkotasun erabagi kasuetan.

5.- Titulartasun pribaduko espazio, eraikuntza, instalazio eta ondasunetan be aplikauko da Ordenantza hau, aurreko ataletan azaldutako espazio, instalazio edo elementuetan bizikidetzeari eta gizalegeari txarrerako eragin leikioen portaerak edo jarduerak garatzen diranean eurotan, baita kontu ezak edo jaubeen edo errentadoreen aldetik mantentze desegokiak txarrerako eraginak sortu leikiezanean espazio publikoan bizikidetzeari edo gizalegeari begiratuta.

#### **4.- Artikulua.** Aplikazio eremu subjektiboa

1.- Bermeoko udalerrian dagozan persona guztiei aplikauko jake Ordenantzea, bardin izanda zelako egoera juridiko-administratibo zehatzean dagozan.

2.- Adin txikikoen jarreretan be aplikagarria izango da Ordenantzea, honen artikuluetan zein beste araudi juridikoetan ezarri eta aurreikusten diran xedapen eta ondorioakaz. Espresuki holan aurreikusten diran kasuetan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek be hartu ahal izango dira adin txikikoez egindako arau-hausteen erantzule modura. Hareen aldetik iruzurra, errua edo ardurabakotasuna egon dala egiaztetan danean, adin txikikoarenganako kontu ez hutsa be, barruan dala.

3.- Era berean, Ordenantzan holan espresuki aurreikusten diran kasuetan, 9. artikuluan xedatzen diran ikuskizun publikoen antolatzaileentzako be aplikagarria izango da.

## **II. KAPITULUA: HERRITARREN ARTEKO BIZIKIDETZA ETA GIZALEGEAREN PRINTZPIO OROKORRAK**

#### **5.- Artikulua.** Bizikidetzeta eta gizalegeko betebeharrak orokorrak

1.- Udal Ordenantza honetatik zein beste edozeinetatik edo generako araubide juridiko aplikagarritik eratorritako betebeharren kalte barik, herrian dagozan persona guztiek, bardin da zein titulu edo egoeretan dagozan nahiz zein egoera juridiko administratibotan egon, Ordenantza honetan aurreikusten diran portaera arauak bete beharko dabez, espazio publikoan gorde behar dan bizikidetzearen oinarrizko bide lez.

2.- Inork ezin izango dau, bere portaereagaz gitxietsi edo kaltetu beste persona guztien eskubideak ezta eraso euren duintasunari ezta ekiteko askatasunari. Inork ezin izango



dau euki portaera gehiegizkorik, bidebakorik, baztertzailerik, indarkeria fisikoa erakusten dauenik, ez bortxatze moralik ez psikologikorik ezta beste edozein moztatarik.

3.- Herritarren arteko bizikidetzea betebeharrin oinarritzkoa da. Errespetuz, arretaz, estimazinoz eta alkartasun bereziaz hartu behar dogu alkar, eta batez be, bakotxaren egoera personal, sozial edo beste edozein moztatokoagaitik beharrizantik handiena daben personak.

4.- Persona guztiek erabili beharko dabez herriko espazio publikoak, zerbitzuak, instalazinoak, uri-altzariak eta eurretan dagozan elementu guztiak era egokian, euren ezaugarriak, helburuak eta zertarako eginak izan diran kontuan hartuta eta beste persona guztiei honeek elementu danak erabilteko eta eurretaz gozatzeko eskubidea errespetata.

5.- Titulartasun pribaduko higiezin, eraikin, eraikuntza, instalazino, ibilgailu eta beste ondasun guztien jaubeek behartuta dagoz, ondasun honeetatik eragin leikiezan portaera eta jarduerak beharrezkoa ez dan nekerik ez eragiten generako persona guztiengan.

6.- Bermeon dagozan persona guztiek udal aginteari edo bere agenteei lagundu behar deutsee herritarren arteko bizikidetzea aztoratu, hausi edo kaltetzen daben portaerak errotik aldentzeko.

### III. KAPITULUA: BIDE PUBLIKOAN EKITALDIAK ANTOLATU ETA BAIMENTZEA

#### 6.- Artikulua. (TESTUA GEHITU DA) (LANTZEN ARI DA PROZEDURA BARRIA)

1.- Espazio publikoetan egiten diran ekitaldi eta jarduera guztiak aurretiaz baimenduta egon beharko dira.

Bide publikoan egiteko diran ekitaldien antolatzaileek jagoken eskaria aurkeztu beharko dabe **hiru egun** (egin beharreko txosten danak egiteko denbora nahikoa da?) lehenago, gitxienez, burutuko diran ekintzei buruzko informazinoa erantsiz. Ekitaldia noiz hasiko dan eta noiz amaituko azalduz, non burutuko dan, izango dauen ibilbidea eta persona arduradunaren nortasuna eta beragaz zelan kontaktatu. Ekitaldi edo jarduera horrek zarata gogaikarriak sortuko baleuz, Bermeoko Zaraten eta Dardaren aurkako Araudiak finkatutakoa bete beharko dabe, batez be 21. artikulutik 26. artikulura finkatutakoa (baimen bereziak, ordutegiak, baimendutako mailak, etab.)

2.- Bide publikoan egiteko diran ekitaldietako antolatzaileek personen eta ondasunen segurtasuna bermatu beharko dabe. Horretarako, kasu bakotxerako jagokon organo eskudunak ezarritako segurtasunezko baldintza orokorrak eta autobabeserako baldintzak bete beharko dabez. Egoereak holan gomendatzen dauenean, udalak fidantza bat ipintea eskatu leikie antolatzaileei edota aseguru poliza bat sinatu daiela agindu, gertatu leikezan kalteei aurre egiteko.

3.- Udal aginteagaz alkarlanean aritzeko ekitaldi publikoen antolatzaileek zaindu beharko dabe erabilitako espazio publikoak ez zikintzea eta euren uri-elementu



arkitektonikoak ez hondatzea. Derrigortuta egongo dira ezelako kalterik gertau ezker, konpontzen, lehengotara ekarten eta garbiten.

4.- Ekitaldietako antolatzaileek erabilitako espazioan ikuspegiaren degradazioa eragiten dabezan portaerak ekidin beharko dabez. Honelako ekitaldietan haregaitik edo horregaitik artikulua honen lehen atalean azaldutako portaerak gertatzen badira, antolatzaileek beharrezkoak diran neurriak hartu beharko dabez.

Aurreko ataletan ezarritakoa bete ezean, huts-egite LARRIA egin dala ulertuko da.

5.- Bide publikoan baimendu bako ekintzak antolatzen badira, edo ezarritako baldintzak beteten ez badira bertan, ekintza horretako antolatzaileen erantzukizuna izango dira bai ekintzea bertan behera iztetik eratorritako ondorioak zein hori dala eta tramitauko diran zigor espedienteak be.

6.- Galazota geratuko da baimendu bako edozein moztetako jarduerarik burutzea espazio publikoan.

## 7. Artikulua.

Udalak ez dau baimenik emongo jai, musikazko, kultura, kirolezko edo beste edozein moztetako ekitaldirik egiteko, euretara joango dan ikus-entzule kopurua, espazio publikoaren beraren ezaugarriak edo behar dan moduan egiaztau edo arrazoituta egoerakaitik arriskuan ipini badaitekez segurtasuna, bizikidetzea edo gizalegea. Kasu honeetan, posible dan baktotxean, udalak antolatzaileei beste areto alternatibo batzuk eskainiko deutsez ekitaldia burutu ahal izateko.

## 8. Artikulua

Konstituzinoaren 21. artikulua onartzen dauen batzeko eta manifestatzeko oinarritzko eskubidea burutzea eskatzen danean, garagarriaren 15eko 9/1983 Lege Organikoaren 9.2 artikulua ezarritakoari jarraituz, udalak beharrezkoa dan txosten arrazoitua emongo dau, eta bertan jasoko da, hala beharrezkoa balitz, ekitaldi edo ekintza hau bere antolatzaileek kokatutako espazio publikoan zergaitik ez litzatekeen egokia egitea. Txosten horren arabera, gobernuko aginte eskudunak jagokon hartu beharreko erabagia hartuko leuke.

## II. TITULUA

### ESPAZIO PUBLIKOAN IZAN BEHARREKO PORTAERA ARAUAK

#### I. KAPITULUA: PERSONENAK

## 9. Artikulua

1.- Galazota geratzen dira, personen duintasuna gitxiesten daben portaerak, baita jarrera lizun eta exhibizionistak, edozein portaera baztertzailer, bardin izaera xenofobokoa izan, zein arrazista, sexista edo homofoboa edo beste edozein eratakoa, ezaugarri personal edo sozialaren aurkakoa; egitez, idatziz zein ahoz; irainak jaurtiz,



barre eginez, nahita gogait eginez, bortxa fisiko edo psikikoaz, eraso eginez, edo beste edozein jarrera iraingarri eta jazarpinak burutuz.

2.- Bereziki galazota geratzen dira goian aitaturako jarrerak adin nagusiko personei zuzenduta dagozanean, adin txikikoei, edo ezintasunen bat daukien personei. Artikulu honetan ezarritakoa ez betetea huts-egite OSO LARRITZAT hartuko da.

## **10. Artikulua. ESKEKOTASUNA. (KENDU)**

1.- Galazota geratzen da eskekotasuna bide publikoan, baita eskekotasun edo forma antolatu itxuran derrigortzen eta jazarten daben portaerak, baita espazio publikoetatik personak askatasunez ibiltea nahi izanda eragozten eta oztopatzen dabezan portaerak. Umeek edo elbarrituek jarrera honeetan parte hartzeak larritu egingo dau arau-hauste hau.

2.- Galazota geratzen da baita, ibilgailu barruetan dagozan personei edozein moetatako zerbitzuak edo ondasunak eskaintzea.

Kasu honen barruan sartuko lirakeke, beste jarrera batzuen artean, bide publikoan geldituta dagozan automobiletako haizetakoak garbitea eskaintzea edo beste edozein objektu eskaintzea.

3.- Espazio publikoan beste edozelako ekintzarik egitea be galazota egongo da, bide publikoan ibilgailuen trafikoa eragozten danean, personen segurtasuna arriskuan ipinten danean, era nabarian oztopatzen danean personak ibiltea espaloietatik, plazetatik, etorbideetatik, pasealekueetatik, bulebarretatik edo beste edozein espazio publikotik. Portaera honeek bereziki galazota geratuko dira bidean burutzen diranean ibilgailuen trafikorako gunek inbadituz.

4.- Udalaren baimen barik, helbururen bategaz dirua eskatzea edo erakarte kanpainak zein sensibilizazio kanpainak, etab. egitea, galazota egongo da.

5.- Jagokon baimen barik, galazota egongo da Bide Publikoan aparkamentu zaintza edo erregulazio jarduerak burutzea.

## **11. Artikulua. BEHARRIZAN FISIOLGIKOAK**

1.- Beharrizan fisiologikoak (txiza, kaka egitea, etab.) Ordenantza honetan azaldutako guneetan eta bere aplikazino eremu objektiboetan egitea galazota egongo da. Horretarako ipinita dagozan instalazino edo elementuak erabili behar dira beharrizan horreek asetzeko.

2.- Aurreko atalean azaldutako jarrera persona asko dabilen lekuetan, adin txikikoak dabilzanetan edo sailkatutako zein babestutako monumentu edo eraikinetan burutzen diranean, huts-egite LARRITZAT hartuko dira.

## **12. Artikulua. ALKOHOLDUN EDARIEN KONSUMOA (KENDU)**

Espazio publikoetan edari alkoholdunak edatea galazota egongo da: "botiloi" modura ezaguna dan praktikea.



“Botiloi” modura ezagutzen dan praktikea, alkoholdun edarien konsumoa da, baina edari honeek ez dira ostalaritza lokaletan saltzen. Kanean edo espazio publikoetan batzen dira pertsona taldeak edateko. Halan ba, persona kopuru bat batzen danean eta alkohola konsumidu, eragozpenak eragin daikiez bai espazio publikoa erabilten daberen personei zein auzo horretako biztanleei, ingurunearen lasaitasuna hausi daitekelako edo osasunaren aurkako egoerak eragin. Praktika hau debekatua dago Bermeoko espazio publikoetan.

### **13. Artikulua.**

1.- Guztiz galazota geratzen da alkoholdun edarien konsumoa, herritarren bizikidetzea larriki kaltetzea eragin daitekeenean. Egoera honek emon behar dira bizikidetzea aztoratu egin dala ulertzeko:

a.- Leku publikoaren morfologia edo ezaugarriak kontuan izanda, konsumoa era masiboan egin daikenean, herritar talde handi bat batuz edo jentetzea pilatzeko erraztasunak gertetan diranean.

b.- Konsumoaren eraginez, ingurunearen lasaitasuna hausi daitekeenean edo osasunaren aurkako egoerak eragin leikezanean eta espazio publikoa erabilten dabenei eta auzokideei eragozpenak eragin.

c.- Konsumoaren ondorioak kanporatzen diranean era iraingarrian espazio publikoan dagozan personentzat eta generako erabiltzaileentzat.

d.- Konsumitzen diran lekuetan adin txikikoak edo ume eta nerabeak dabilzanean.

2.- Atal honetan agertzen dan debekua eragin barik geratuko da edari alkoholdunen konsumoa establezimentuetan eta horretarako espresuki ezarritako beste espazio batzuetan egiten danean, terraza eta mahaitxuetan, adibidez; eta konsumo horrek, kasu puntualetan, jagokon agintearen baimena daukanean. Debeku honetatik kanpo geratzen dira Txosnak eta behar dan moduan baimendutako beste egoera batzuk.

### **14. Artikulua.**

Edari-ontzi guztiak jagokezan kontainerretara bota behar dira, edo, kasuak halan eskatuta, espazio publikoan kokatuta dagozan paperontzietara. Galazota geratzen da lurrera botetea edo bide publikoan iztea latak, botilak, edontziak zein beste edozein gauza. Atal honetan ezarritako jarrerea arau-hauste arintzat hartuko da, egitateak arau-hauste larriagoa suposetan ez dauen bitartean.

### **15. Artikulua. ADIN TXIKIKOEN ALKOHOLDUN EDARIEN KONSUMOA**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko drogodependentzia arloko aurre-hartze, laguntza eta gizarteratzerako bagilaren 25eko 18/1998 Legeak ezarritakoaren kalte barik, eta lege honegaz bat etorrita, galazota geratzen da, 18 urtetik beherako personei alkoholdun edariak saldu edo emotea.





Debeku hori ez batetea lege-hauste larri edo oso larritzat hartuko da, osasunarentzat eragiten dauen kaltearen arabera.

2.- Aurreko artikuluetan jasotako kasuetan, aginteko agenteek kautelazko neurri modura erretirau egingo dabez eta konfiskau edariak, ontziak, eta debekupean dagozan beste elementu guztiak, materialak eta erabilitako tresnak. Konfiskau diran alkoholdun edari eta janariak desegin egin daitezke berehala, osasun eta higiene arrazoiak bide dirala.

3.- Legea hausi dabenek adin txikikoak badira, beharrezko izapideak burutuko dira euren guraso, tutore edo zaintzaileei emoteko gertatutakoaren barri eta egiaztatu Ordenantza honetan aurreikusitako egoeren intzidentziarik emon danentz.

## II. KAPITULUA: HERRITARREN BIZIKIDETZEA AZTORATZEN DABEZAN PORTAERAK

### 16. Artikulua

1.- Herritar guztiek bete beharko dabez larrialdi egoeratan, klimatologiak eragindako edo beste honelakoetan, bide publikoan agintekak eta bere agenteek ezarritako neurri murriztaileak, personen eta ondasunen segurtasuna babesteko izango dira neurriok eta.

2.- Segurtasuna gordeteko hondartzetan eta batez be itsasoko jardueretan, emoten diran aginduak zehatz mehatz bete beharko dira eta bainu-lekuetako baldintzei buruzko seinaleak errespetauko dira. Holan egin ezean, huts-egite LARRITZAT hartuko da.

3.- Hondamendi kasuetan, Bide publikoan Herritarren Segurtasuna eta Ordena Publikoa mantentzeko agintzen diran neurri murriztaileak herritar guztiek bete beharko dabez.

4.- Larrialdiko herritarren erreskate eta segurtasun zerbitzuen parte hartzea eraginik istripuen edo ezbeharren itxurak eta plantak egin ezkerok, huts-egite LARRI modura ulertuko da.

5.- Okerreko edo egia ez dan informazioa emonaz egiten diran deiek Larrialdiko herritarren erreskate edo segurtasun zerbitzuak lanean ipini izatea eragiten badabe, huts-egite LARRITZAT hartuko dira.

### 17. Artikulua

Bide publikoan eta jentea dabilen lekuetan, eraikinetan eta zerbitzu publikoko ibilgailuetan, herritarrek gorde behar daben portaerea herritarren arteko bizikidetzaren barruan mantendu behar da.

Galazota egongo da bereziki:



Herritarren atsedena eta lasaitasuna haustea telebistek, irratiek, altzari mobimentuek, jokoek, abestiek, aldarriek, liskarrek, animaliek (batez be bakarrik itzita dagozalako eta inork ez dauzalako zaintzen), eta abarrek sortutako zaratakaz.

2.- Ibilgailuen martxak indartzea zarata nekagarriak sorturik beharrezkoak ez diran abiadak hartzean.

3.- Uri barruan turutak edo beste edozein seinale akustiko jotzen ibiltea, ez bada baten bat zapaltzeko edo autoek talka egiteko arrisku larriaz ohartu nahi dala, edo larrialdietako zerbitzu publiko zein pribaduak dirala.

4.- Egokiak ez diran erabilera edo okupazioakaitik etxebizitzetan sortutako hasarrakuntzen ondoriozko zaratak. Gorabehera horreek gerta leikez etxean jente lar bizi dalako, txarto zainduta dagoalako etxea, gune komunak okupauta dagozalako edo debekupeko jarduerak garatzen diralako.

### **18. Artikulua (KENDU)**

Jarraian aitatuko diran jarrerak arau-hauste modura tipifiketeak daukan helburua bizikidetzak baketsua bermatzea da, baita horren aurkako jarrerak erabateko zigorra izatea eta gizalegezkoak ez diran portaerak ezalako zigor barik geratu ez daitezala. Lege-hauste penalera heldu barik, herritarrei kalte larria eragiten deuseen jarrerak dira eta juridikoki, herritarrek ez daukie zertan jasan horrelakorik.

Horregaitik, eta indarreko legediak ezarritakoaren arabera, alkateei jagoke zigorrak ipintea arau-hauste arinakaitik:

1.- Bildurra eragiteko asmoagaz personak segurtasunarentzat objektu arriskutsuak erakustea (objektu arriskutsu modura hartuko da, neurriak, formea, ezaugarriak eta zein materialez eginda dagoan alde batera itzita, personei mehatxu, kalte eta mina egiteko modukoa dana).

2.- Agintearen edo beraren agenteen agindurik ez betetea, Herritarren Segurtasuna Babesteko Legeak ezarritakoaren arabera eta egindako arau-hausteak zigor penalik ez daukanean.

3.- Agintearen eta podere publikoaren agenteen lanean eta Ordenantza honetan ezarritakoa beteteko euren eskumenak erabiltean, jarrera oztopatzailea erakutsi leikien ekintzak edo ez egiteak.

4.- Herritarren segurtasuna arriskuan ipintea edo desordenak sortzea bideetan, espazioetan, eraikinetan, establezimentu publikoetan, honako ekintzetan parte hartuz:

a.- Liskarrak, errietak, errebeskeria egintzak, banadalismoa edo indarkeriako egintzak edo horren aurkako burutzea, kalte edo mina eragin izanaz gain, kaleetan, espazioan edo establezimentu publikoetan honakoak eginez:

b.- Agenteen lana oztopatu edo eragozteko egintzak burutzea, euren aurrean agintearen printzipioaren aurka doan jarrera erakutsiz.

c.- Botilak edo kristalezko beste edozer gauza apurtzea Bide Publikoan.



d.- Aldarrika berba egitea Bide Publikoan, gaueko atsedena eragotzirik.

e.- Bide Publikoan iztea estupefazianteak konsumitzeko tresnak.

5.- Ordenantza honen arau-hausteez kalifikazio juridiko arina izango dabe, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko zezeilaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 29.2 artikulua eta honen antzeko legediak ezarritakoaren arabera, atzera jauste eta errepikatze kasuetan izan ezik.

6.- Aginteko agenteek erretirau eta konfiskau egingo dabez kautelazko neurri modura arau-hausteez egiteko erabili izan diran objektu eta tresnak, batez be, armak, lehegailuak, abiadura handiko itsasontziak, droga toxikoak, estupefazianteak eta substantzia psikotropikoak. Gauza guzti honeei legeak agintzen dauen erabilera emongo jake.

### III. KAPITULUA: JARDUERENA

#### 19. Artikulua. SALTZAILE IBILTARIAK

Merkataritza dendetatik kanpo, ohiz edo noizbehinka, saltzaileek egiten daben merkataritza jarduerak da kale-merkataritza. Postuetan, instalazio desmuntagarrietan edo horrelakoak barik, kalean edo herriko espazio libre eta zabaletan egiten da jarduerak hau.

Azoka, azokatxoetan, egunero eta noizbehinka egingo dira salmenta ibiltari honeek. denboraldiko postu finkoetan, udalaren baimena lortu eta gero; hori barik ezin izango da ezelako salmentarik egin.

Jagokan Udal Ordenantzearen kalte barik, guztiz galazota geratzen da kalean jentearengana joanaz egiten dan salmentea, manta ganean produktuak ipinitakoa edo ibilgailuetan edo kamioi-dendetan egiten dana, dana dala salgaia. Beti be, horretarako berariazko baimena izan ezean.

Agintearen agenteak erretirau egingo dabez kautelazko neurri modura arau-hauste hau burutzeko erabili diran produktuak. Gauza horreei legez jagoken erabilera emongo jake. Janariak edo ondasun hondagarriak badira, desegin egingo dira eta jagoken erabilera egokia emon.

#### 20. Artikulua

Galazota dago baimenik ez daukien saltzaile ibiltariei laguntzea emotea, adibidez, produktuak emonda, agintearen agenteen presentziaz ohartuta, etab. Espazio publikoan baimenduta ez dagoan salmenta ibiltariko produkturik erostea be galazota geratzen da.



**21. Artikulua (HEMENDIK KENDU ETA LONJADIKIDETZA ARAUDIAN SARTU. BESTETIK, OBREI BURUZKO PUNTUAK URIGINTZAKO OBREN ARAUDIAN SARTU; ETA TERRAZEI BURUZKO PUNTUA BE TERRAZEN ARAUDIAN SARTU)**

Bide publikoan udalarenak zein udalarenak ez diran obrak egitean, urigintzako lizentzia bidez onartutako obretako elementu laguntzaileak ipintean, edo horrelakoetan, Bermeoko Udalak lizentzia emotean agindutako baldintzak osotasunean bete behar dira. Baldintza horreek udalaren lizentzian eta baldintza teknikoen orrietan agertzen dira. Horrezaz gain, beste baldintza honeek be bete beharko dira, ezarrita egon leikezan berariazko beste arauen kalte barik:

a.- Erabilera publikoko espazio libreterako sarbidea mugatzen daben troka, zanga, aldarnio, zulo, karga-jasogailu eta holako elementuak seinatu egin behar dira eta babestu, herritarren segurtasun fisikoa bermatzeko eta oinezkoak ahalik eta errazen eta erosoan ibili daitezkan.

b.- Hesi egonkor eta kendu bakoakaz babestuko dira obra honeek, harri barik, labain egiten dabezan ezta irauli daitekezkan egiturak barik. Hesi barruan sartuko da zangen eta laginen perimetro guztia, erabilten dabezan materialak, makineria eta guztia. 50 cm egongo dira alderik urtenena eta hesiaren artean. Hesien orde txikotak, sareak, zintak edo horrelako elementurik ezin izango da ipini.

c.- Babesteko elementuak argi gorriakaz iragarri beharko dira. Iluntzen hasten danagaz batera biztu beharko dira argiok, egun argi egin arte.

d.- Obrak oinezkoen ibilbidea hartzen dabenean, 1,50 m.ko gitxieneko pasabide bat ipinita bermatuko da oinezkoak pasau ahal izatea. Espaloiek neurri hori baino gitxiago daukienean, zabalera honetako pasabide bat bermatu beharko da. Metalezko edo horrelako plantxak ipinten badira oinezkoak ibili ahal izateko, plantxa honeen inguruak ezin izango dau zentimetro bi baino gehiago urten espaloiarene kotatik.

e.- Metro 2,20ko altuerea baino txikiagoa daukien txarrantxakaz jarritako aldarnuak, behar dan moduan seinatu eta babestu beharko dira zoruraino, ibilbidetik luzetara, ondo ikusten ez daben personei handik ibiltea errazteko.

f.- Obra honeei jagokezan kontainer eta zakuak oinezkoen ibilbidetik kanpo ipini behar dira. Ortoedro formakoak ez diranak forma hori hartu beharko dabe babes-elementuak erantsirik zorutik hasita kontainerraren goiko alderaino, holan, ondo ikusten ez dabezan personek detektatu egingo dabez handik igarotekan. Kontainerraren muge goitik beherakoa ezetara be ezin izango dabe gainditu materiala isuri eta gero.

g.- Obra guztiek identifikauko dabe euren jaubea, enpresa kontratistea eta, bere kasuan, udal lizentzia emonda daukala, kartel ikusgarri bidez. Aldi berean, obren helburua, hasikera eta amaierako datak eta kontakturako telefonoa be agertu egin beharko da.

1.- Galazota geratzen da herritarrei nekea sortu ahal daben orduetan obrak eta konponketak egitea, batez be, gaueko 22:00ak eta goizeko 08:00ak artean. Zapatu, domeka edo jai eguna izanda, galazota egongo da gaueko 22:00ak eta goizeko 09:00ak artean egitea.



2.- Galazota geratzen da, behar dan baimena lortu ezean, propagandarako, iragarteko, abisua emoteko, jostatzeko, etab., edozein soinu-dispositibo erabiltea, zaratak edo dardarak eragitea edo herritarren atsedena oztopatzen dauen beste edozer erabiltea.

3.- Era ilegalean lonjak eta beste honelako lokalak erabiltea batzarrak egiteko, jaiak ospatzeko edo behar dan baimen barik beste edozein jarduera gogaikarri edo osasunaren kontrakoa garatzea.

4.- Baimendu bako jarduerak, zaratak eta nekeak eragiten dabezanak eta herritarren eta oinezkoen lasaitasuna eta atsedena hausten dabenek zigortuak izango dira arau-hauste LARRI modura.

5.- Etxebizitzen edo Egoitza erabilerako guneak kaltetuz 22:00ak eta 7:30ak bitartean nekea eragiten daberen jarduerak. Salgaien zamalanetan langileek kontu berezia izan beharko dabe golpe zuzenik ez emoteko, eta bere ibilbidean daroan kargeak dardararik edo zaratarik eragin ez daian.

6.- Galazota egongo da sua egitea etxebizitzetatik hurre, arriskutsua izan leikelako. Ezin izango da erabili ezta, sugarririk ez sua hartzean emisino toxikoak sortzen dauzan materialik.

7.- Aurreko ataletan azaldutako jarrera guztietako erantzule modura etxebizitzen edo lonjetako jaubeak hartuko dira, ez bada errentan emonda daukiezala beste batzuei eta errenta kontratu horreetan espresuki ezarrita dagozala erabilerak baldintzak eta bizikidetzak arauak eta ordenantza honek araututako gizalegezko portaerak. Holan, errentadore guztiak arau horreek betetera behartuta egongo lirateke.

8.- Beharrezkoa dan baimena aurretiaz lortu ezean ezin izango da inolako urigintza arloko jarduerarik garatu.

## **22. Artikulua**

1.- Edari eta janarien salmentarako establezimientuek ezin izango dabe eragin gogaitasun akustikorik auzokideei ez bertatik igaroten diranei. Jardueren zarateari buruzko araudia izango daube aplikagarria.

2.- Ostalaritza establezimientuek zabaltzeko eta ixteko ordutegiak bete beharko dabez, Araudi aplikagarriek eta udal erabagiek ezarritakoak hain zuzen be. Ordutegi honeek ez betetea arau-hauste LARRI modura hartuko da.

## **23. Artikulua (23. ETA 24. ARTIKULUAK SINPLIFIKATZEA ESKATU DA. EGIA ESAN, 24. ARTIKULUA ZARATEN ETA DARDAREN AURKAKO ARAUDIAN SARTUTA DAGO JADANIK ETA 23. AN ESATEN DANA ZARATEN ARAUDIKO 23. ARTIKULUAN BE ARAUTZEN DA, BAINA BESTE ERA BATERA: OROKORREAN DEBEKATUTA DAGO ETA BAIMENDU LEIKE BAIMEN BEREZI BATEZ. ERABAGI BEHAR DA ZEIN PLANTEAMENDU ONARTU BIETATIK)**

Espazio publikoetan egiten diran kale-emonaldiak onartuko dira, beti be, ibilbidea eragozten ez badabe edo bide publikoaren erabilerak normala oztopatzen ez bada,



10:00ak eta 22:00ak artean egiten badira eta ikastetxeetatik eta laguntza zentroetatik eta egoitza lagunduetatik hurre ez badagoz.

#### **24. Artikulua**

Galazota egongo da bide publikoan megafonia erabiltea, baimenduta egon ezean eta ekitaldi zehatzak iragarteko ez bada.

#### **25. Artikulua (MANTENDU ANALISIA JURIDIKOA EGIN ONDOREN: ESPARRU PRIBATUAN SARTZEA ...)**

Alarma sistemaren bat ipinita daukien enpresa, denda, etxebizitza edo ibilgailuetako arduradunek funtzionamentu egoera egokian mantendu beharko dabe beti eta deskonektatu, alarma faltsuagaitik jotzen hasi bada.

Justifikatu barik soinu-alarma sistemak jotzen hasten diranean eta nekea eragin auzokideengan, arduraduna aurkitu ezin bada, agintearen agenteak ahaleginduko dira alarmak isilarazoten, **beti be, higiezin pribatura sartzea suposatzen ez badau**, edo, ibilgailuen kasuetan, lekuz aldatu eta nekerik eragingo ez dauen nonora errotan.

#### **26. Artikulua (KENDU)**

1.- Saltzeko edo errentan emoteko ibilgailuak bide publikoan aparkatzea galazota egongo da, baita beste edozein publikidade helburuagaz izten badira edo espazio publikoaren erabilera intentsiboa egiten badabe.

2.- Bide publikoan ibilgailuak bertan behera iztea be galazota egongo da. Bertan behera itzi egin dalako espedientea zabaltzen bada, salatu beharra ekarriko dau beragaz.

#### **27. Artikulua (KENDU)**

Bide publikoan piroteknia artikulua erabili ahal izateko baimena beharko da, bestela, galazota egongo da erabilerea. Erabilpena era ofizialean baino ez da baimenduko. Hemen ezarritakoa ez betetea arau-hauste LARRItzat hartuko da.

#### **28. Artikulua. Berariazko esku-hartzeak. (PROPOSAMENA: BESTE ARTIKULUEKIN ELKARTU, IDEIAK ERREPIKATZEN DIRA. zelan?)**

1.- Personen duintasunaren aurkako jarrerak zein jarrera baztertzailleak emoten diranean eta legez kanpoko eta zigor penalekoak izan daitezkeanean, agintearen agenteek jagokon Aginte Judizialaren jakinean ipiniko dabez, Ordenantza honen arabera zehapen espedientea zabaltzearen kalte barik.

2.- Ordenantza honetan jasotako kasuetan, agintearen agenteek kautelazko neurri modura erretiratu egingo dabez erabilitako material edo tresnak.



3.- Udalak, eskubidea izango dau arau-haustearen ondorioz eragindako kalteak garbitu edo konpontzeko, baina horreek suposatzen dauzan kalte eta galerak persona arduradunak edo arduradunek ordainduta eta egokitu beharko jakezan zigorren kalte barik. Garbiketa eta konponketa horreek eragindako gastuak kobrauko dauz udalak eta beharrezkoak liratekeen zigorrak be, ezarriko. Hau nonon jaso beharko litzake (59. artikuluan zeozelan jasotzen da, agian osotuta nahiko da).

4.- Arau-hausleak adin txikikoak diranean eta euren kargupean dagozan adin txikikoen egitateen erantzukizun zibil subsidiarioa izateaz gain gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek, adin txikikoek egindako arau-hausteen erantzule zuzeneko eta solidario modura agertuko dira. Hareen aldetik iruzurra, errua edo ardurabakotasuna egon dala egiaztetan danean, adin txikikoarenganako kontu ez hutsa be, barruan dala.

5.- Grafitiak edo pintadak Kode Penalaren 626 artikuluan aurreikusitako ondarearen aurkako arau-haustea diranean, agintearen agenteek eskumendun aginte judizialaren jakinean ipiniko dabez, jagokon zehazpen espedientea zabaltzearen kalte barik.

6.- Araua hausi dauen personeari eskatuko deusie materiala erretiretea eta eragindako kalteak konpontzea, guzti hori, araua hausi dauelako jagokon zehapen espedientea zabaltzearen kalte barik.

7.- Arau-haustea espazio publikoan jarduerak garatzeari bajagoko, agintearen agenteek erabilitako gauzak konfiskauko dabez kautelazko neurri modura.

8.- Arau-haustea bide publikoan konsumitzea danean, agintearen agenteek edariak, ontziak, janariak eta debekupeko tresneri guztia eta material eta elementu guztiak erretirauko dauz kautelazko neurri modura. Konfisketako alkohol dun edariak eta janariak berehala desegin daitezke osasun eta higiene arrazoiak bide dirala.

9.- Arau-hausleak adin txikikoak diranean, behar diran izapideak egingo dira Ordenantza honetan aurreikusitako egoerak errepiketan badira egiazteteko, hola izan ezker, jagoken salaketea ipini beharko jake.

10.- Aurreko artikuluetan jasotako kasuetan, janari edo ondasun galkorrek izan ezker, berehala desegingo dira edo emongo jake erabilera egokia.

### III. TITULUA: URI INGURUNEARENA

#### I. KAPITULUA: IKUSPEGIAREN DEGRADAZINOA

##### 29. Artikulua

1.- Galazota egongo da espazio publikoaren edozein elementu ganean edo azalera graffitiak, pintadak, orbanak, zirriborroak, idatziak, idazkunak edo grafismoa egitea edozein materialez (tintea, pintura, gai organikoa edo beste edozein). Bardin gertauko da ekipamentuen barru zein kanpoko aldeakaz, zerbitzu publiko edo instalazinoetako elementu eta azpiegiturakaz, garraio publikoagaz, ekipamentuakaz, uri-altzariakaz,



zugatzakaz, lorategiakaz, bide publikoakaz orokorrean eta Ordenantza honetan azaldutako generako elementu guztiakaz.

Horma-irudi artistikoak ez dira sartzen debeku honen barruan, jaubearen edo udalaren baimena izanda egiten diranean.

2.- Bide publikoan era ikusgarrian eta betiko jarrita dagoan ondasun pribadu batean egiten danean grafitoa edo pintadea, udalaren baimen espresua be, beharko da.

3.- Arau-hauste modura ulertuko da persona, talde edo erakundeak iraintzen dauzan publizidadea.

### **30. Artikulua**

1.- Kartelak, hesiak, errotuluak, eranskailuak, kolatutako paperak edo bestelako publizidade, iragarki edo propaganda udal aginteak horretarako ipini dauzan lekuetan baino ezin izango dira erantsi.

Galazota dago kartelak edo pankartak udalaren eraikin edo instalazinoetan ipintea, edozein espazio publikoan edo paisaiaren edozein elementutan, uri-altzarian zein naturazko elementuetan, udalaren baimen espresua izan ezean.

2.- Bardin beharko da udalaren baimen espresua, ikututako ondasunaren jaubearenaz gain, kartela edo pankartea ondasun pribaduan jarri gura danean edo hegaz egiten badau espazio publiko ganera. Atal honetatik kanpo geratzen dira leihoetan, balkoietan edo begiratokietan ipinten diran ikur eta pankartak.

3.- Baimena eskatzen dabenek eukiko dabe ardurea ipinitako elementuak kentzekoa eta elementuok lehengotara itzultzekoa be, udal zerbitzuek emondako jarraibideak kontuan hartuz.

4.- Galazota egongo da kartelak, iragarkiak, pankartak eta holakoak arraskatzea, kentzea eta espazio publikora botetea.

5.- Ibilgailuetako kristalen goi aldean publizidadea ipintea galazota egongo da, edozelako foileto eta merkataritzako publizidade-orriak edo bestelako edozein material zabaldu eta botetea bide publikora, espazio publikoetara edo Ordenantza honetako 3. artikuluan ezarritako beste espazioetara.

6.- Etekez etxe publizidadea banatzen dabenek ezin izango dabe propagandea jaube alkarteek zeregin horretarako ezarrita daukiezan lekuetatik kanpo itzi.

7.- Mezuen zabaltze kontratazinoa sustatzen dabenek persona fisiko edo juridikoek erantzule zuzenak eta solidarioak izango dira egile materialek burututako arau-haustetatik eratorritako ondorioenak.

### **31. Artikulua (OBREI BURUZKO PUNTUAK URIGINTZAKO OBREN ARAUDIAN SARTU; ETA TERRAZEI BURUZKO 6. PUNTUA BE TERRAZEN ARAUDIAN SARTU) TESTUA ERANTSI DA**





1.- Galazota egongo da Bide Publikoan sektore pribaduari jagokon jardueraren bat garatzea, adibidez, oreak egitea, obra elementuak garbitea, solteko materiala metatzea, materialak ebagi eta prestetea, ibilgailuak konpondu edo garbitea, beti be, horretarako baimen berezirik izan ezean.

2.- Jagokon baimen barik eta izanda be, behar dan moduan homologatutako seinale barik mugatu ezean, galazota geratzen da Bide Publikoa okupetea.

Seinaleak autoak ibilteko galtzadea eta ibilgailuak izteko gunea erditzen dauen luzera guztian jarriko dira. Seinale-balizak ipiniko dira, erresekako bi gitxienez. Oinarri piramidal edo zilindro eratakoa izango dabe 45 cm. gorabeherako altuereagaz eta 20 kilokoak izango dira gitxienez. Oinarri horren ganean masta bat jarriko da aparketako debekua daukan seinaleagaz. Bere alderik baixuenean egongo da, galtzadearen sestra ganeko 1,2 metrotara (R.309 seinalea Zirkulazinoaren Erregelamentu Orokorren arabera). Masta baktxaren erdi aldean, plakea eroango dau soldauta, ertz barik, eta han ezarriko da udal lizentziaren kopia, erreserbearen ordutegia eta zein egunetik zein egunetara egongo dan. Aparketea debekatzen daben seinaleen behe aldeak ondo ikusten dan zinta batez batuta egongo dira. Erreserbeak 10 metro linealak gaitzen dauzanean, baliza barri gehiago ipiniko dira 5 metro lineal baktxeko edo inguratzen dan galtzadearen zati baktxeko.

3.- Galazota dago urez hornitzen dauen sare publikoa erabiltea ureztatze-aho edo horrelako ur-hartuneakaz, udalaren aurretiazko baimenik ez badauka. Ura hartzeko iturri publikoen gehiegizko erabilera be atal honetan sartzen da.

4.- Ingurunean beharrezkoak ez diran gogaitasunak sortzen dabezalako, galazota geratzen da zamalanak edo beste horrelako jarduerak garatzea (bide publikoa okupetea, keak, hautsa, zaratak etab. eragitea).

Beharrezkoa dan baimena izan ezker, nekerik ez sortzeko edo ahalik eta gehien gitxitzeko hartu behar diran neurri guztiak hartu beharko dira.

5.- Galazota egongo da Bide Publikoan izakera publikoko zerbitzuak emon edo egiteko oztupoak ipintea, adibidez, hondakin solidoak batzea, kontainerrak hustu edo erretiretea, paperontziak hustea, etab.

Bolumen handiko altzari eta etxetresna batze zerbitzuaren kasuan, espresuki baimentzen da altzariok bide publikoan ixtea, sastarren edukiontzien ondoan edo udalak finkatutako beste lekuren batean, beti be aurretiaz enpresa arduradunari abisua emon ba jako.

6.- Ostalaritza jarduerako baimendutako terraza eta mahaitxuetan neurri, ezaugarri, garbiketa eta funtzionatze ordutegi mugak bete beharko dira.

**32. Artikulua (PROPOSAMENA: FINKATU BEHARREKO ORDUTEGIA, ETAB. AZTERTU BEHARKO LIRATEKE. BAINA ORDUTEGI BATZUK JADANIK FINKATU DIRA (LORONTZIAK, ALFONBRAK ...), BESTE EZER GEHIAGO SARTU BEHAR DA??)**



Herriko itxura on bat edukitzeko asmoz eta zerbitzu egokiak izateko, hondakinak era egokian kudeatu behar dira herritarron aldetik.

1.- Honexek izango dira sastarren eta hondakinen tratamenduak eta ordutegiak:

1.1.- Sastarrak.

**Egunero** batuko dira, egun honeek izan ezik:

- Irailaren 9an (Arrantzale eguna)
- Abenduaren 25ean (Eguberria)
- Urtarrilaren 1ean (Urtebarri eguna)

Sastarrak ixteko ordutegia:

- Domekatik barikura: 19:00 – 22:00
- Zapatuetan: 14:00 – 18:00

Sastarrak poltsa zarratuetan itxi beharko dira eduki-ontzi grisetan.

1.2.- Birziklatzeko hondakinak. Birziklatu ahal diran hondakinak, jagokon eduki-ontzietara bota beharko dira:

- Papera eta kartoia.  
Eduki-ontzi urdinetan itxi beharko dira, ondo tolestuta.
- Beira.  
Eduki-ontzi berdeetan itxi beharko dira.  
Ordutegia: 8:00 – 22:00.  
Gauean ez bota, auzokideei eragozpenak ez sortzeko.
- Ontziak.  
Plastikozko ontziak, latak, tetra-brikak, eduki-ontzi horietan itxi beharko dira.
- Olioia.  
Janaria prestatzeko erabiltzen dan olioia horretarako dagozan eduki-ontzietara bota beharko da, plastikozko ontzietan.
- Arropak eta oinetakoak.  
Horretarako dagozan eduki-ontzietara bota beharko dira arropak, oinetakoak, etxeko tresna txikiak zein jostailuak.
- Pilak.  
Era guztietako pilak ere horretarako dagozan eduki-ontzietara bota beharko dira.
- CDak eta DVDak.  
CDak eta DVDak batzeko zerbitzu berezi bat dago Berh@z bulegoan eta udal liburutegian.
- Botikak.



## Botika zaharrak edozein farmaziara eroan ahal dira

1.3.- Birziklatzeko bestelako zerbitzuak. Gainontzeko zerbitzuak ere herritarren esku dagoz hondakinak birziklatzeko:

- Garbigunea.  
Hurrengo materialak ixteko erabili daiteke Garbigunea, zeina Landabaso A poligonoan dagoen: Obra-hondakinak, altzariak, etxetresnak, egurra, autoen pneumatikoak, bateriak, olioak, erradiografiak, fluor-lanparak, eskuzko telefonoak...
- Altzari zaharrak eta etxetresnak.  
Altzari zaharrak etxez-etxe batzeko zerbitzu bat ere eskaintzen da. Zerbitzu hau erabiltzeko, aurretiaz **telefonoz** abisatzea derrigorrezkoa da. Unean uneko baldintzak eta ordutegiak ez betetzeak dagozkion ondorioak ekarriko lituzke.

2.- Galazota egongo da Bide Publikora isuri, bota edo han iztea edozein elementu, substantzia edo hondakin, ingurunea zikindu, lohitu edo higatuko badau, jentea bertatik pasatea eragotziko badau edo horretarako gaitutako lekuetatik kanpora egin bada.

Jagokan salaketa administratiboaren kalte barik, egilea arduratu beharko da gertautakoa konpontzeko hartu beharreko neurrietaz.

3.- Animaliak elikatzeko substantziak eta elementuak Bide Publikora botatea edo bertan iztea galazota egongo da.

4.- Bide Publikoan dagozan lorategiak eta lorontziak ureztatzea, elementuak eskegitea, etab., gaueko ordutegian egin beharko dira (22:00ak eta 07:00ak bitartean), behar diran neurriak hartuta herritarrei kalterik ezta nekerik ez eragiteko.

5.- Alfonbrak, erratzak, trapuak etab., kalera edo pertsonak dabilzan barruko patioetara emoten daben balkoietan, begiratokietan eta leihoetan jalgitea, gaueko 21:00ak eta goizeko 10:00ak bitartean baino ezin izango da egin eta inori kalterik ez nekerik ez eragiteko moduan egin beharko da, egin be.

6.- Hondakin urikoak zein industrialak udalak horretarako ipinitako ontzietara botako dira, ezarritako ordutegietan.

7.- Galazota egongo da hondakin urikoak zein industrialak horretarako ipinitako kontainerretatik kanpo iztea.

8.- Klean dagozan kontainerretan sartu edo eurretatik hondakinak eta gauzak ataratea galazota egongo da.

9.- Bide publikora edozein moetatako isurketa eginez haren egoerea aldatzea eragiten daben persona juridiko edo fisikoak arduratu beharko dira euren egintzakaz edo ez egiteakaz sortutako kalteak konpontzen. Guzti hori, izango lekuiezan zigorrak ipintearen kalte barik. Atal honetan esandakoa beteten ez bada, arau-hauste LARRI modura hartuko da.



## II. KAPITULUA: ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILEREARENA

### 33. Artikulua (KENDU)

Galazota geratzen da espazio publikoen eta euren elementuen erabilera desegokia egitea, ganerako erabiltzaileak espazio horreetaz gozatzea edo espazioak erabiltea eragotzi ezkeru.

Ekitaldi publikoak edo beste beharizan batzuk egon ezkeru, autobus kopuru handiak hartzea itxaroten danean, zinematografia filmaketak egingo badira edo holakoetan, garabi mobikorrak erabili behar diranean, instalazio desmuntagarriak kargau eta deskargau etab., holako kasuetan bide publikoa aurretiaz gorde behar danean, ospakizuna, jarduerak edo dana dalakoa gertau baino 72 ordu lehenago gitxienez, eskatu beharko da. Ez ordea, ospakizuna eskatzean zehaztasun guztiak barruan sartu badira. Seinaleak aurreko artikuluetan ezarritakora egokituko dira.

### 34. Artikulua (KENDU)

Espazio publikoen eta euren elementuen erabilera desegokiak ez dira egongo onartuta:

1.- Bide eta espazio publikoetan akanpau edo gaua egitea. Honegaz ulertzen da, aldi baterako edo egonkortasunez jarri dirala espazio publiko honeetan edo euren elementuetan kanping-dendak, autokarabanak zein karabanak. Guzti hori leku zehaztuta egoteko baimena euki ezean. Autokarabana eta karabanen kasuetan, egoitza modura erakustean (ibilgailuari galgea emon, elementuak atara, luzagarriak, mahaiak, etab.) akanpada izakerea hartuko dau.

2.- Jesarleku eta aulki publikoak jesarteko barik beste zeozetarako erabiltea.

3.- Norbera garbitu edo bainatu iturri, urtegi edo holakoetan.

4.- Erropak garbitu iturri, urtegi, dutxa eta holakoetan.

5.- Uri-hondakinak esku artean erabili, isuri edo aukeratzea, guztia zabaldurik eta barriro batzea eragotziz edo eukiten ebezan ontziak aldatuz.

6.- Jarduera komertzial edo industrial batek zikintasuna sortzen dauenean sarritan bere inguruan, edo terrazen kasuan, baimendutako espazioan, establezimentuko jaubeak garbi mantendu beharko dau jagokon bide publiko zatia, beste neurri zuzentzaile batzuk hartu eta lizentzia emotean indarrean egoan legedi aplikagarriak agindutako beste betebeharrak guztiak burutu behar diren kalte barik.

7.- Galazota geratzen da bide publikoan petardoak, bengalak eta edozein gauza botetan daberen tresnak erabiltea. Tresna honeen artean zerbatanak, tiragomak, bolak jaurtitzeko dabezan pistolak etab. dagoz. Baita benetako arma itxurakoak be.



### **35. Artikulua.** Barbakoak egitea

- 1.- Barbakoak espresuki baimendutako aisiarako eta akanpadarako eremuetan baino ezin dira egin.
- 2.- Barbakoak eta aisialdirako guneetako elementuak erabilten dabean guztiek derrigortuta dagoz elementuok ondo zaintzera eta erabiltera. Erabilera desegokia galazota egongo da.
- 3.- Barbakoak erabilten dabean personeren betebeharrekoa izango da erabilitako materiala erretiratu eta sortutako errauts goriak amatatea.
- 4.- Barbakoak egiten diranean galazota egongo da:
  - a.- Personeren lasaitasuna hausi eta gogaitu daikien zaratak sortzea.
  - b.- Personentzat eta ingurumenarentzat hats gogaikarriak edo kaltegarriak sortzen dauzan edozelako ekintza burutzea edo ezer ez egitea.
  - c.- Janari hondakinak, latak, botilak eta beste honelako materialak horretarako ipinita dagozan tokietatik (paperontziak, kontainerrak, etab.) kanpo iztea, mahaietan bertan behera iztea, etab.
  - d.- Hondakinak batzeko kontainerretara errauts goriak isurtzea.
  - e.- Barbakoak erabili izanaren ondorioz, osasunarentzat eta ingurumenarentzat material kaltegarriak erabiltea.

Azaldutako jarreraren aurkako portaerak izatea eta euren ondoriozko artikulua honetan aurreikusten diran arau-hausteez, izakera ARINA eukiko dabe.

## III. KAPITULUA: URI-ALTZARIENA

### **36. Artikulua.** URI-ALTZARIEN ERABILERA DESEGOKIA

Espazio publikoan jokoak eta kirol norgehiagoka masibo eta bat batekoak egitea galazota geratzen da, herritarren eta espazio publikoen ganerako erabiltzaileen eskubide legezkoak aztoratzen badabaz.

### **37. Artikulua**

Erabat galazota egongo dira espazio publikoaren erabiltzaileen segurtasun fisikoa arriskuan ipini daikien gailu, substantzia edo beste gauza batzuek jarduerak egitea. Bardin gertauko da ondasunen segurtasunagaz, zerbitzuen eta instalazioenakaz, bai publiko zein pribaduak izan.

### **38. Artikulua (KENDU)**

1.- Trafiko Araudiak ezarritako arau-hausteen kalte barik, ez dagoz baimenduta txirrinduakaz, patinakaz edo monopatinakaz akrobaziak edo jokoak egitea, horretarako zuzenduta dagozan eremuetatik kanpo.



2.- Galazota geratzen da oinezkoentzako eskailerak, persona elbarrituentzako irisgarritasun elementuak, eskudelak, aulkiak, barandak edo beste edozein uri-altzari erabiltea akrobaziak egiteko.

### **39. Artikulua (PROPOSAMENA, 39. ETA 40. ARTIKULUAK ARTIKULU BAKAR BATEN BILDU, IKUSITA BIAK DOAZELA URI-ALTZARIEI BURUZ)**

1.- Uri-altzarietan kalteak eta zikintzeak eragin edo eragin leikiezan egintzak galazota egongo dira, batez be, elementuak era desegokian erabilten badira, hausi edo suntsitzeko moduan, nagusiek edo adin txikiko baina elementuok erabilteko nagusituak diranek erabilten badabez. Erabili ahal izateko adina kartel batek iragarriko dau.

2.- Seinaleak, balizen elementuak eta uri-altzariak aldatzea, lekuz aldatzea eta honeek beste erabilera baterako erabiltea galazota egongo da.

Ezarritako hau ez betetea huts-egite LARRI modura ulertuko da.

### **40. Artikulua**

1.- Osasunarentzat eta personen segurtasun fisikoarentzat eta ondasunentzat kaltegarria izan liratekeen egoerek sortzen dabezan uri-altzariaren erabilera eta jarrera bandaliko, erasokor eta ardurabakoak galazota egongo dira.

2.- Espazio publikoetan edo instalazino eta elementuetan (mobikor edo mobiezinak izan) narriadura larria eta suntsiketak eragiten dabezan egintzak galazota egongo dira, aurreko artikuluan jasotako herritarren segurtasuna arriskuan ipintetik eratorriak, batez be.

3.- Galazota egongo da pintatzea, erretea, eta era desegokian erabiltea hondakinak batzeko edo errezikletako kontainerrak. Kalte egin leiken beste edozein egintza be galazota egongo da.

Atalotan azaldutako egintzak huts-egite LARRI modura hartuko dira.

## **IV. TITULUA:**

### **ANIMALIAK EUKITEKO ARAUBIDE JURIDIKOA**

#### **I. KAPITULUA: ANIMALIAK EUKITEA**

### **41. Artikulua**

1.- Animaliak babesteko, urriaren 29ko 6/1993 Legeak eta generako arau aplikagarriek ezarritakoa kontuan izanda, animalia bat daukan pertsona izango da, jaubearren erantzukizun subsidiarioaren kalte barik, pertsoneri, beste animalia batzuei, gauzei,



bideei, espazio publikoei eta ingurumenari, orokorrean eragin leikiezan kalte edo nekeen erantzulea.

2.- Eukitea baimenduta daukien animalia basatiak katigu mantendu behar dira, bide eta espazio publikoetara eroan barik, bertan erakusteko eta handik ibilteko.

3.- Animaliak daukiezanek ahalegindu behar dira honeek ihes ez egiten.

4.- Etxe-abereak eta lagun egiten dabenak daukiezan personak edo honeen jaubeak diranak segurtasun baldintza onetan mantendu beharko dabez, auzokideei, bizikideei eta persona guztiei orokorrean, ezelako egoera arriskutsu ez gogaikarririk ez eragiteko. Horretarako beharrezko neurriak hartu beharko dira.

5.- Bereziki, debeku honeek ezarten dira:

a.- Janariak prestau, bildu, garraiatu, erabili edo saltzeko diran lokaletan ezin izango dira sartu animaliak, ezta ugertoki publikoetara be, itsu-txakurrak eta segurtasunekoak izan ezik.

b.- Jentetza handia izango dan toki publikoetara animaliak eroatea, itsu-txakurra eta segurtasunekoak izan ezik.

c.- Auzokideen bizitzea aztoratzea etxe-abereen zarata edo bestelako hotsakaz, bardin etxe barruan badagoz zein kanpoan, terrazetan, kamaretan, galerietan, balkoietan, karrajuetan, eskaileretan, patioetan eta holakoetan, batez be 22:00ak eta 8:00ak bitartean. Jai egunetan eta asteburuetan (eragin honeetarako bariku, zapatu eta jai bezperak), ordutegia 23:00etan hasi eta goizeko 9:00etan amaituko da.

6.- Lagun egiten daben etxe-abereek baldintza honeek bete beharko dabez bide eta espazio publikoetan dagozanean, eta bardin higiezinetakoz zati komun eta kolektiboetan, garraio publikoetan eta erabilera publikoko gune eta tokietan:

a.- Jagoken identifikazioa eroango dabe beti.

b.- Identifikazioa agiria eroango dabe.

c.- Idunekoa eta txikota edo kateagaz lotuta joango dira, animaliarri ezelako zauririk ez eragiteko kontuagaz.

d.- Derrigorrezkoa da arriskutsuak izan liratekeen txakurrek musturrekoa eroan beharra. Udal aginteak derrigortu leike beste arrazatakoek be erabiltea egoereak holan eskatzen dauenean eta agindu noiz arte.

7.- Jatetxeetako jaubeek, galazo daikie, euren eretxiaren arabera, animaliak sartzea eta egotea euren establezimentuetan, itsu-txakurrak eta Segurtasun Gorpuetako txakurrak salbu. Eragin honeetarako, establezimentuaren sarreran eta ikusteko moduko lekuan ipini beharko dau debekatze hori azaltzen dauen iragarkia. Dana dala, animaliak sartu eta egon ahal izateko, behar dan moduan identifikauta egon daitezala eskatuko jake, txikot edo kateaz lotuta egotea eta musturrekoa ipinita. Guzti hori ez litzateke beharrezkoa izango establezimentuan gune zarratu eta berariazko bat balego animalientzako.



## II. KAPITULUA: ANIMALIEN JAUBEENA EDO ANIMALIAK DAUKIEZANENA

**42. Artikulua.** Lagun egiten daberen animalien jaubeen edo animalia honeek daukiezanen betebeharrak:

Lagun egiten daberen animalien jaubeek edo animalioek daukiezanek honakoak betetera behartuta dagoz:

- 1.- Osasun-kartillea euki behar dau.
- 2.- Homologatutako mikrotxip batez elektronikoki identifiketa egongo da.
- 3.- Txakurrak euki ezkerok:
  - a.- Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO aurrerantzean) izena emonda eukitea.
  - b.- Animalia inori emoten bajako, etxez aldatzen bada edo zentsuko datuetan beste aldakuntzarik egiten bada, 10 egunen barruan AIEOri jakinarazotea, baita animalia hil dalako bajea emon be.
  - c.- Lagun egiten daueren animalia galdu egin dala edo ostu egin dabela jakinarazotea AIEOri 48 orduren barruan.
- 4.- AIEOn izena emon ezkerok, jaubeari edo animalia daukanari indentifikaziorako agiri edo plaka bat emongo jako, animalia eta jaubearen edo daukan personearen datuak eta erregistroa egiaztatuz.

**43. Artikulua.** Animaliak bide eta espazio publikoetan

1.- Animalien jaubeak edo animaliak daukiezan personak ahal dan guztia ahalegindu behar dira honeek kalterik egin ez daien ez zikindu espazio publikoak, ezta eraikinetako fatxadak. Batez be, ondorengoak galazoten jake:

- a.- Bide eta espazio publikoetan animaliak garbetea eta iturri publikoetan musturra ipinita ura edaten emotea.
- b.- Bide eta espazio publikoetan bertan behera itzita dagozan animaliei jaten emotea.
- c.- Instalazino edo eraikin publiko barruetara animaliak sartzea, batez be umeen jolas guneetara. Sarrerea espresuki baimentzen jaken guneetan izan ezik. Debeku honek ez dau eraginik izango itsu-txakurrengan, itsurik dagozan personei laguntzen doazanean.
- d.- Umeentzako parkeetan eta lorategietan ezin izango dabe kakarik ez txizik egin.
- e.- Animaliek egiten daberean kakak berehala batu eta era higienikoan boltsa egokietan ez ipintea eta horreentzako leku egokian ez sartzea.

2.- Aurreko paragrafoan esandakoa bete ezean, udal agintearen agenteek animalia eta jaubeari edo animalia daukanari eskatuko deutesie zikindu diran elementuak garbitu daizala, izango leukezan zigorren kalte barik.

## III. KAPITULUA: ANIMALIAK EUKITEARI JAGOKOZAN ARAU- HAUSTEAK





#### **44. Artikulua.** Animaliak eukiteari jagokozan arau-hausteak

Animalien babeserako 6/1993 Legeak ezarritakoaren kalte barik, Lege horretan tipifiketako arau-hauste administratiboak dira animalien babeserako arloan atal honeetan adierazoten diranak:

##### 1.- Arau-hauste arinak dira:

- a) Lagun egiten daben animaliak mikrotxip bidez identifiketako betebeharra ez betetea.
- b) Beharrezkoa dan zaintzea eta arretzea emon ezin jaken lekuetan animaliak eukitea.
- c) Animaliei tratu txarrak emotea eta fisikoki erasotea, zauritzera ez heldu arren.
- d) Eguneko denporarik gehiena lotuta eukitea animalia edo eurentzako hain beharrezkoa dan mobimentua eragozte eta mugatzea.
- e) Animaliak hiru hilabete beteten dauzenez ez ataratea jagokon kartilea.
- f) Toki, eraikin edo instalazino publikoetan animaliak eukitea, ez badira itsu-txakurrak edo segurtasunekoak.
- g) 4 ordu baino gehiago jarraian eukitea animaliak aparkatutako ibilgailuetan, argipatioetan, balkoietan edo holakoetan. Beharrezkoa dan aireztatze bako ibilgailuetan, gerizperik ez dagoan lekuan udaldian, beti be beste persona batzuei nekeak eragiten deutsezan bitartean.
- h) Animaliak soltean eukitea bide edo espazio publikoetan, txikot, ugal edo kateaz lotuta egon beharrean.
- i) Eraikinetako fatxadetan eta uri-altzarietan animaliei txiza egiten iztea.
- j) Bide eta espazio publikoetan bertan behera itzita dagozan animaliei jaten emotea.
- k) Bide eta espazio publikoetan animaliak garbitea eta iturri publikoetan musturra sartuta edaten emotea.
- l) Animalien babesari buruzko Legean eta berau garatzen dauen Araudian ezarritako beste edozein arau-hauste, larri edo oso larri modura sailkatuta ez dagoana.

##### 2.- Arau-hauste larriak dira:

- a.- Lagun egiten daben animaliei txertorik ez ipintea edo behar daben tratamenturik ez emotea.
- b.- Albaitariak hala agindu barik eta haren kontrol barik identifikazino sistema indargabetzea.
- c.- Hegazti eta animaliei orokorrean tiro egitea. (Ehiza jardueretan izan ezik).
- d.- Animaliei tratu txarrak emon edo fisikoki eraso, hareen osasunarentzat ondorio larriak eragiten dabezanean.
- e.- Ikuskatze lanari aurre egitea edo oztopatzea.
- f.- Animaliak albaitariarengana ez eroatea euren osasuna bermatzeko, beti be ondorio larriak izan leikezanean.
- g.- Katuak, txakurrak eta animalia basatiak etxe partikularretan eukitea katigu, beharrezkoa dan lizentzia barik.
- h.- Animalia basatiak eukitea katigu, aldizka behar dauen kontrol barik ezta aurretiazko komunikazino barik.
- i.- Umeek erabilten dabezan parke eta lorategietan kaka eta txiza egiten iztea etxe-abereei.
- j.- Auzokideen bizitzea aztoratzea zarata, abesti, abarrots edo etxe-abereek sortutako beste edozein zaratagaz, bai etxe barruan badagoz zein kanpoan, terrazetan,



kamaretan, galerietan, balkoietan, karrajuetan, eskaileretan, patioetan eta holakoetan, batez be 22:00ak eta 8:00ak bitartean.

Jai egunetan eta asteburuetan (eragin honeetarako bariku, zapatu eta jai bezperak), ordutegia 23:00etan hasi eta goizeko 9:00etan amaituko da.

k.- Umeeak erabilten dabezan parke eta lorategietan animaliak eukitea.

l.- Animalia hilen gorpuak edo hondakinak bide edo espazio zabal publikoetan edo pribaduetan itzi edo botetea.

m.- Janariak prestatu, bildu, garraiatu, erabili edo saltzeko tokietan animaliak egotea, itsu-txakurrak eta segurtasunekoak izan ezik.

n.- 12 ordu baino gehiagotan lagun egiten daben animaliak eurak bakarrik iztea, etxe barruan zein kanpoan: terrazetan, galerietan, balkoietan, karrajuetan, eskaileretan, patioetan edo holakoetan.

ñ.- Animaliak egotea izten daben jatetxe edo establezimentu publikoetan behar dan moduan identifikatu barik eukitea, ugal edo kate barik eta musturreko barik, beti be, eurentzako egokitutako gune zarratu eta berariazkoan egon ezean.

o.- Personei, beste animalia batzuei edo ondasunei zauriak edo kalteak eragin dabezan etxe-abereen jaubeek edo animalioak daukiezanek euren betebeharrak ez betetea.

p.- Bide eta espazio publikoetan animaliek egindako kaka berehala ez batzea eta ez botetea behar dan lekura eta ez garbitea ingurua.

q.- Hiru arau-hauste arin egitea, erabagi irmo bidez zigorra ipinikoak, zehazpen espediente hasi baino **urte bete** lehenagotik hasitako epean (**legeak urtebete aurreikusten dau, ez bi**).

3.- Arau-hauste oso larriak dira:

a.- Bide eta espazio publikoetan pozoituako janariak iztea.

b.- Hiru arau-hauste larri egitea, erabagi irmo bidez zigorra ipinikoak, zehazpen espediente hasi baino **urte bete** lehenagotik hasitako epe barruan.

#### IV. KAPITULUA: ARRISKUTSUAK IZAN LIRATEKEEN ANIMALIAK

**45. Artikulua.** Katigu dagozan animalia basatiak eta arriskutsuak izan liratekeenak.

1.- Animalia basatiak eta arriskutsuak izan liratekeenak katigu eukitea galazota egongo da. Baldintza honek beteten dabezanak hartuko dira holakotzat:

1) Narrastiak: krokodiloak, kaimanak eta ofidio pozoitsuak eta orain zein heldutasunera heltzean kilogramo bitik gora daukienak edo eukiko dabezanak.

2) Artropodoak eta arrainak: pozoia ziztatzean erasotutako personea edo animalia ospitalera joan behar danean.

3) Helduak diranean 10 kilogramotik gora izango dabezan ugaztunak.

4) Izaera erasokor nabaria agertzen daben animaliek edo persona edo beste animalia batzuei eraso deutseenak eta balizko arrisku hau onartua izan danean jagokon udal agintearen erabagi bidez eta erispide objektiboakaz, bai ofizioz edo jakinarazpen edo salaketa baten ondorioz eta eskudun udal aginteak izentetako edo gaitutako albaitari ofizialak edo alkargokideak aurretiaz txostena emonda .



2.- Artikulu honetan azaldutako jarrerak arau-hauste LARRIaren izakerea eukiko dabe.

#### **46. Artikulua.** Arriskutsuak izan liratekeen txakurrak

1.- Arauan ezarritako baldintzak betez euki ahal izango dira arriskutsuak izan liratekeen txakurrak. Honako baldintzaren bat beteten dauen txakurra hartuko da arriskutsua izan liratekeen moduan:

a.- Honako arrazaren batekoa bada edo arraza honeen arteko kurutzatzetik sorturikoa:

- 1.- Akita Inua
- 2.- Terrier Staffordshire amerikarra
- 3.- Dogo argentinarra
- 4.- Fila brasildarra
- 5.- Pit-Bull Terrierra
- 6.- Rottweilerra
- 7.- Staffordshireko Bull-Terrierra
- 8.- Tosa Inua
- 9.- Legez ezarri ahal dan beste edozein.

b- Txakurrak eukiteari buruzko lege-araubideari jagokon garagarriaren 9ko 101/2004 Errege Dekretuaren II. Eranskinean azaltzen diran ezaugarri guztiak edo gehienak daukazanak.

2.- Xedapen honek ikututako txakurrak honako ezaugarri guztiak edo gehienak daukiez:

a.- Muskulatura sendoa, itxura poderetsua, indartsua, egitura atletikoa, bizkorra, azkarra eta erresistentzia handikoa.

b.- Izakera gogorrekoa eta adore handikoa.

c.- Ule laburra.

d.- Bularraldeko perimetroa 60 eta 80 zentimetro bitartekoa, altuerak kurutzean 50 eta 70 zentimetro artekoa. 20 kg.tik gorako pisua.

e.- Buru handia, kuboidea, sendoa, buruhazur zabala eta handia, matraila gihartsuak eta konkortuak. Matrailazur handi eta sendoak, aho indartsua, zabala eta sakona.

f.- Idun zabala, gihartsua eta laburra.

g.- Aurreko hankak paraleloak, artezak eta indartsuak. Atzekoak oso gihartsuak, nahiko luzeak, angelu neurtua sorturik.

3.- Dana dala, aurreko atalean sartuta egon ez arren, arriskutsuak izan liratekeen txakur moeta barruan sartuko dira izakera erasokor nabaria daukienak edo persona zein beste animalia batzuei eraso deuseenak. Balizko arrisku hau udal aginte eskudunaren erabagi bidez onartu beharko da, erispide objektiboakaz, bai ofizioz edo jakinarazpen edo salaketa baten ondorioz eta eskudun udal aginteak izentetako edo gaitutako albitari ofizialak edo alkargokideak aurretiaz txostena emonda.

## **V. TITULUA: XEDAPEN KOMUNAK**



## I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

**47. Artikulua.** Ordenantzea apliketeko Alkatetzearen dekretu eta jarraibideak.

Alkatetzearen dekretu bidez ezarriko dira Ordenantza honen aplikaziotik sortu leikezan arazoei buruzko erispideak eta inplikaturako erakundeen eta udal agenteen egintzak garatu eta zehaztuko dira.

**48. Artikulua.** Udaltzaingoaren eginkizunak Ordenantza honi jagokonean

Administrazioaren polizia dan ezker, Udaltzaingoak, aplikagarria dan legediak ezarritakoagaz batera, Ordenantza hau beteten dala zaindu beharko dau. Salatu egin beharko dauz, hala jagokonean, honen kontra doazan jarrerak, eta hartu, hala egokitu ezker, aplikagarriak diran neurriak, eta izapidetu beharrezkoak diran espedienteak.

**49. artikulua.** Herritarren beharrezko laguntzea.

1.- Bermeon dagozan persona guztiek lagundu beharko deutsee udal aginteari eta honen agenteei herritarren arteko bizikidetzea eta gizalegea jagoten espazio publikoan.

2.- Aurreko atalean ezarritakoaren ondorioetarako, Bermeoko Udalak beharrezkoak diran neurri guztiak ipiniko dauz errazteko, bere betebeharrak guztietan edozein personak udal agintearen jakinean jarri daizan ezagutzen dauzan egitateak, herritarren arteko bizikidetzea eta gizalegearen aurkakoak diranak, hain zuzen be.

**50. Artikulua.** Agintearen agenteek egiaztutako egitatei buruzko elementu probagarriak.

1.- Ordenantza honen xede diran gaiei buruz tramitetan diran zehapen prozeduretan, egitateek aurkeztu dabean Agintearen agenteek emondako informazioak, salatuak ukatu ondoren berretsi egin diranean, oinarri nahikoa izango dabe jagokon erabagia hartu ahal izateko, kontrakorik probetan ez dan bitartean eta espedientearen eskuragarri dagozan elementu probagarri guztiak sartu behararren kalte barik.

2.- Tramitetan diran zehapen espedienteetan, eta indarreko legediagaz bat datozen baldintzakaz, salaturako gertakizunen irudiak gehitu daitezke, bai argazkitan, filmaketa digitalean edo beste edozein bide teknologiko erabiliz, egiaztetako salaketan jaso diran egitateak, indarreko legedi aplikagarriaren arabera.

**51. Artikulua.** Herritarren salaketak

1.- Arau-hausle/hausleetaz kanpo beste interesdun batzuk egotearen kalte barik, edozein personak, 48. artikuluan aurreikusitako betebeharrak burutuz, borondatezko salaketea aurkeztu daike, udalaren jakinean ipini ahal izateko Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera arau-haustea izan litzatekeen egitate zehatzen bat.



2.- Salaketetan, egitateak egiten dauzan personearen nortasuna agertu behar da, arau-haustea izan lirakeen egitateen azalpena, zein egunetan izan zan, eta ahal danean, balizko persona arduradunen identifikazioa.

3.- Salaketea zehapen prozedura bat zabaltzeko eskariagaz batera doanean, udalak salatzaileari adierazo beharko deutso prozedura hori hasiko bada edo ez, **eta zabaldu ezkerro, ze erabagi hartu dan arau-hausteari buruz.** (Hau kendu egin behar da, zigor espedienteak babestutakoak dira eta)

4.- Salatutako arau-haustearen izakereagaitik arriskua balorau ostean, instruktoreak salatzailearen datu personalak konfidentzial modura aldarrikatu daitez, haren anonimotasuna bermatuz administrazio-espedientearen izapidean. Konfidentzialtasun hau salatzaileak eskatzen dauenean onartu beharko da, **beti be modu egokian frogatzen badau eskaria justifikatuta dagoela** (Salatuak eskubidea dauka nork salatu dauan jakiteko, ez bada oso justifikatuta dagoela nortasuna gordetzea).

5.- Agintearen agenteek, borondatezko salaketa honen nondik norakoak egiaztauko dabez, egiaztatze horren ondorioak espedientearen agerturik.

## **52. Artikulua.** Adin txikikoen jarreraren erantzukizuna

1.- Umearen eskubideei buruz legediak ezarritakoa kontuan izanda, adin txikikoei ipini ahal jakezan udal agintearen zehapen neurriek, honeen interes gorenari begira hartuko dira berariaz. Aldi berean, euren adina eta heldutasunaren arabera, ikutzen deutseezan gai guztietan entzunak izateko eskubidea bermatuko jake eta euren eretxiak kontuan hartuak izango dira.

2.- Arau-haustek adin txikikoak diranean, eta umearen edo nerabearen eskubideak, garapena eta prestakuntzea babesteko helburuagaz, neurri zuzentzaile modura diru zigorrak ipini beharrean, erkidegoarentzako beharrak edo gizalege izakerako edozein jardura burutzea agindu lekie. Neurri honeek arrazoituta hartuko dira, arau-haustearen moetea kontuan izanda. Arau-hauste jarrereak behar dauen zehapenagaz proportzionalak izango dira. Horretarako, gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen eretxia eskatuko da, baina EZ da izango lotugarria.

3.- Euren kargu dagozan adin txikikoek egindako arau-hausteen erantzule zibil subsidiarioak izango dira gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak.

4.- Aldi berean, Ordenantza honetan espresuki aurreikusten diran kasuetan, gurasoak, tutoreak eta zaintzaileak izango dira adin txikikoek egindako arau-hausteen ondorioz sortutako kalteen erantzule zuzen eta solidarioak, beti be, egiazteten bada euren aldetik iruzurra, errua edo ardurabakotasuna egon dala, adin txikikoarenganako kontu ez hutsa be, barruan dala.

5.- Irakaskuntza zentroetara joatea derrigorrezko oinarrizko hezkuntza (lehen eta bigarren irakaskuntzak) mailetan, sei urtetik hamaseira bitartean, adin txikikoek daukien eskubidea eta betebeharra da.

6.- Udaltzaingoak esku hartuko dau eskola orduetan adin txikikoak kaletik badabilz. Horretarako, udaltzaingoak indentifikazioa eskatuko deutse eta zergaitik ez dagozan



ikastetxean ikertuko dau. Etxera edo ikastetxera eroango dauz eta guraso, tutore edo zaintzaileen jakinean ipiniko dau gertautakoa, jagokon hezkuntza agintearen jakinean be ipiniko dau, eskola orduetan bere ikastetxetik kanpo aurkitu dauela adin txikikoa esanez.

7.- Dana dala, edozein salaketa egin dala, zehapen espedientea zabaldu dala, edo zigorren bat ipini jakola adin txikiko bati jakinarazoko jake guraso, tutore edo zaintzaileei.

## II. KAPITULUA: ZEHAPEN ARAUBIDEA

### 53. Artikulua. Zigorren graduak

1.- Proporzionaltasun printzipioa aplikatuz ipiniko dira Ordenantza honetan ezarritako zigorrak, eta beti be, honako graduatze erispideak kontuan izanda:

- a.- Arau-haustearen larritasuna.
- b.- Gurata egin izatea.
- c.- Eragindako kalteen izakerea.
- d.- Atzera jaustea.
- e.- Errepiketea.
- f.- Arau-hauslearen gaitasun ekonomikoa.
- g.- 19. artikuluan araututakoaren arabera, onartuta ez dagoan merkataritza ibiltarian eskainitako ondasun eta produktuen izakerea.

2.- ARIN modura kalifikau diren arau-haustek, **200 eurora arteko (graduatzeko aukera egon behar dau)** diru-kopuruagaz zigortuko dira. LARRIAK 201 € eta 750 € bitarteko diru-kopuruakaz eta OSO LARRIAK 751 € eta 3.000 € bitartekoakaz.

Jarraibide orokor modura, Ordenantza honetan ezarritako arau-haustek ARIN modura sailkatuko dira. Salbuespenak izango dira larri edo oso larri modura tipifiketan dauzan artikulua. Esandako erispiek kontuan hartuta graduatuko dira arau-haustek.

3.- 15. artikulua ez betetearen ondoriozko zigorrak bereziak dira azaldutako portaerea bera be berezia dalako:

a.- 3.000 eurotik 15.000 euro bitartera edo aldi baterako jardurea geldiarazotea, zentroa, lokala edo enpresea osotasunean edo zati batean itxirik, urte bira arteko eperako.

b.- Zigorren graduazinoa:

- .- Lehen zehapen espedientea: 3.000 eta 15.000 euro bitarteko isuna.
- .- Bigarren zehapen espedientea: 15.000 euroko isuna.
- .- Hirugarren zehapen espedientea: Isuna eta aldi baterako establezimentua ixtea, 15 egun eta 6 hilabete bitartean.
- .- Laugarren zehapen espedientea: Isuna eta establezimentua ixtea, gehieneko urte biko epean.



4.- **Atzera jaustea** egon dala ulertuko da, urtebetean Ordenantza honetako arau-hausteren bat baten baino gehiagotan egin danean eta erabagi irmo bidez erabagi danean. **Errepikapena** egon da persona arduraduna zigortua izan danean Ordenantza honetan agertzen diran arau-haustekaitik edo Ordenantza honetako arau-haustekaitik beste zehapen prozedura batzuk tramitetan dagozanean.

5.- Isun zehapenak ezartean kontuan izango da, beti be, arau-hauslearentzat zigorra betetea ez daiala izan hausitako arauak betetea baino onuragarriagoa.

Atzera jaustea edo errepikatze kasuek larritu egingo dabe arau-haustearen kalifikazioa.

6.- Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera diru-zigorra barik beste era batekoa ipinten danean, bardin aukerakoa zein derrigorrezkoa izan, zigor honen edukina, proportzionaltasun printzipioa eta aurreko paragrafoetan adierazotako erispideak kontuan izanda ipiniko da.

#### **54. Artikulua.** Arau-hausteen erantzukizuna

Araua hausi dauen edo daben persona edo personak mugatzera zuzendutako ikerketak egin eta gero, ezinezkoa bada erabagitea ze parte hartze gradu izan dauen arau-haustea egitean parte hartutako subjektu bakotzak, erantzukizuna solidarioa izango da.

#### **55. Artikulua.** Zigorren metaketea

1.- Kausa-efektu erlazinoa daukien arau-hauste bi edo gehiagogaitik zehapen prozedura bat zabaltzen danean, zigorrik handienari jagokona bakarrik ipiniko da.

2.- Aurreko atalean adierazoten dan kausa-efektu erlazinoa emoten ez danean, arau-hauste bi edo gehiago daukienei egindako arau-hauste bakotxari jagokon zigorra jarriko jake, subjektuetan, egitateetan eta oinarrietan identitatea ikusten danean salbuetsita. Kasu honetan, jarrera intentsidade, larritasun eta zorrotasun handiagotaz zigortzeko araubidera joko da.

#### **56. Artikulua.** Zigorra gitxitzea

1.- Salatutako personek euren erantzukizuna bereganatu daikie isunak ordainduta. Orduan isuna % 50era gitxituko da.

2.- Isunaren zenbatekoa ordaintzean amaitu egingo da prozedurea, egokiak liriatekeen helegiteak ipintearen kalte barik.

**57. Artikulua.** Isunen ordezkari erakundeentzat onuragarriak diran beharrak egin arazotea.

1.- Isunaren ordezkari udalak eginarazo leikez erkidegoarentzako beharrak.



2.- Behar honeetara bertaratu ezean, jagokon zigorra ipiniko jako arau-hausleari, egindako arau-haustearen larritasuna kontuan hartuta.

3.- Erkidegoaren alde beharrak egiteko neurria interesdunaren aurretiazko onarpenagaz hartuko da, isuna ordaintzearen ordezeko aukera modura, legeak derrigortasuna ezarten ez badau.

4.- Erabagian nahiz gero, ordeztu leike udalak udal jabari publikoan egindako kalteen ordainketa ekonomikoa erkidegoarentzako beharrak eta beste honelako ordainakaz, beti be, interesdunen aurretiazko onarpena dagoala eta legeak derrigortasunik ezarten ez badau. Zigorren ordezte hau gertau ezkeru, udalak konpondu beharko dauz kalteak zigortutako personeari ipinitako beharra berori ez bada, hau da, kaltetutakoa konpontzea.

### **58. Artikulua.** Zehapen prozedurea

1.- Ordenantza honen arabera herritarren bizikidetzeari eragiten deusien arau-haustek diranean, agintearen agenteak egindako salaketeak zabalduko dau zehapen prozedurea eta salatutako personeari jakinarazoko jako. Salaketa honetan azalduko dira egitateak, egin diran arau-haustek eta izan leikezan zigorrak, instruktorearen nortasuna, eskumena daukan aginte zigortzailea eta zein arauk emoten deuson eskumena.

Salaketan adierazoko jako baita 15 egunen barruan, egokia balitz, behar diran alegazioak egin leikezala eta bere aldeko probak egitea be proposau.

Epea amaitu eta gero edo jagokon proba egin ondoren, instruktoreak organo eskudunaren esku itziko dau espedienteari buruzko erabagia hartu daian. Arau-hausleari jakinarazoko jako zigorra.

2.- Aplikagarria izango da Administrazioaren egintzetan aurreikustako zehapen prozedurea, edota, legediak xedatutakoa.

3.- Alkateak delegau edo banandu egin leikez bere eskumenak zigor ahalmenari jagokonean.

## III. KAPITULUA: KALTEEN KONPONKETEA

### **59. Artikulua.** Kalteen konponketea

1.- Ordenantza hau ez beteteari jagokozan zigorrak ipinteak ez dau salbuetsiko arau-hauslea eragindako kalteak konpondu beharretik, ez bada isunaren ordezkidegoaren aldeko beharrak egitea aukeratu dauela.

2.- Aurreko atalean ezarritako eraginetarako, halan jagokonean, udal administrazioak egite subsidiario bidez tramitauko dau kalteen konponketea eta horreen ordainketa kobrantzarako premiamenduzko bidea erabiliko da.





#### IV. KAPITULUA: ADMINISTRAZINO-UDALTZAINGOA

##### **60. Artikulua.** Administrazio-udaltzaingoaren neurriak

1.- Agintearen agenteek beti eskatuko dabe Ordenantza honetan aurreikusten diran xedapenen berehalako betearazpena. Legeen aurkako jarrerak salatu izatearen kalte barik, ahoz agindu leikie arauak beteten ez dabean personei euren portaeran edo jarreran jarraitu ez daiela eta ohartu jaramonik egin ezean erantzukizun penalean jausi daitekezala esana ez betetearren.

2.- Egindako arau-hausteak herritarren arteko bizikidetzea eta gizalegea aztoratzeaz gain, espazio publikoan narriaduraren bat eragiten dauenean, kalte konpontzea eskatuko jako egileari eta berehala edo ahal dauenean garbitu daiala zikindutakoa.

3.- Udaltzaingoari kasurik egiten ez jakonean, eta artikulu honen 1. atalak dinoanaren kalte barik, arau-hausleek atara egin leikez dagozan lekuetatik, beti be, proportzionaltasun printzipioa betez.

4.- Jagokon zehapen prozedura zabaldu ahal izateko, agintearen agenteek balizko persona arduradunari identifiketea eskatuko deusie. Arau-haustea burutu dauen personearen identifikazioa lortu ez bada haregaitik edo horregaitik eta zehapen espedienteari hasikerea emon ahal izateko, agintearen agenteek agindu ahal deusie eurakaz joatea hurreen dagoan dependentziara identifikazio eginbideak bertan egin ahal izateko. Eragin honeetarako bakarrik eta behar dan denporan bakarrik egongo dira dependentzietan eta arau-haustea egin dauen personeari informauta zertarako eskatzen jakon eurakaz dependentzietara joatea.

5.- Dana dala, eta agintearen agenteen esku-hartzea edo errekerimentua eragin dauen arau-hasuteagaitik ezarri beharreko zigorra alde batera itzita, 35. artikulua 2 eta 3 ataletan azaldutako jarrera oztopatzaileek beste arau-hauste independente bat sortzen dabe.

#### V. KAPITULUA: BEHIN BEHINEKO NEURRIAK

##### **61. Artikulua.** Behin behineko neurriak

1.- Zehapen prozedura hasita, prozedurearen garapen normala bermatzeko behin behineko derrigorrezko neurriak hartu leikez, bai arau-hauste barririk ez egiteko zein ezarri leiken zigorra bete egingo dala ziurtatzeko. Araudi orokorrean zein sektorekoan ezarritako edozein neurri ezarri leike kasu bakotxari aplikagarria danean eta arau-haustearren larritasuna eta izakereagaz proportzionala danean.

2.- Legeak holan aurreikusten dauenean, behin behineko neurriak hasi leikez hartzen zehapen espediente zabaldu orduko.

##### **62. Artikulua.** Konfiskazioak



1.- Ordenantza honetan espresuki aurreikusten diran kasuetaz gain, agintearen agenteek konfiskatu ahal izango dabe, arau-haustearen xede diran tresnak eta gauzak, baita, arau-haustea egiteko zuzenean edo ez zuzenean erabili izan diranak. Esate baterako: dirua, arau-hauste jardueratik eratorritako emoitzak eta produktuak. Guztiak gordeko dauz udalak zehapen prozedura tramitetan dan bitartean beharrezkoa dan denporan, prozedurarik ez balego, konfiskazioa eragin eban egoerak irauten dauen bitartean.

2.- Konfiskazioak eragindako gastuak berau eragin dauen egoerearen egilearen kontura joango dira.

3.- Ondasun hondagarriak diranean, desegin egingo dira edo jagoken erabilera emon. Konfiskatutako objektuak jagokon organo zigortzailearen esku ipiniko dira. Erabagi irmoa hartu eta gero, hilabete bi igaro ondoren titularrak objektua eskuratu barik, desegin egingo da edo doanik emongo jake helburu sozialdun irabazi asmo bako erakundeei.

4.- Galkorrak ez diran efektu eta produktu konfiskatuak itzuli ahal izango jakez, itzultzea eskatu eta gero, euren jatorri legezkoa egiaztetako agiriak edo zigorra ordaindu izanaren agiria aurkezten dauenari.

